



BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI
Maiatzak 27, Donostian, maniFESTazioa

Euskarazko matrikulazioa gora doa, horrek pentsarazten digu euskararen normalkuntza ongi doala eta jende askok aldarrikapena alde batera utzi du. Euskararen aldeko giroa hoztu egin da, euskararen egoera larria izan arren.

Euskalduntzean faktore askok eragiten dute, baina eskola oinarritzeko zutabea da. Jaurlaritzaren hezkuntza sailak euskara maila neurtzeko egindako ikerketa ospetsuaren arabera, D ereduan hiru ikasletik bik soilik menperatzen dute euskara, B ereduan hirutik batek eta A ereduak batek ere ez. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ez da bermatzen ez eta euskaraz ikasteko eskubidea ere. Euskal Herrian, oro har, hiru ikasletik bi ez dira euskalduntzen.

Euskalgintzaren eremuan gabiltzan hainbat eragilek -Kontseilua, Euskal Konfederazioa, Oinarriak, AEK, IKA, Euskal Herrian euskaraz, Topagunea, UEU, Hik Hasi, Euskal Herriak Bere Eskola, Ikasle Abertzaleak, Sortzen Ikasbatuaz eta LAB sindikatua- joan den otsailean bai eskolak euskalduntzeari sinadura bilketa kanpaina jarri genuen abian. Geroztik ehunka lagun aritu dira sinadurak biltzen herri, auzo, lantegi eta ikastetxeetan. Euskal herri osoko kaleetan zehar egin dira festak eta beste jarduera batzuk, era askotako euskaltzaleak elkartu eta mugitu dira, milaka sinadura jaso dira.

Kanpaina honen barruan, ez amaiera emateko, beste fase bati ekiteko baizik, datorren larunbatean, **Maiatzak 27, Donostian egingo da maniFESTazio** bat. Euskal Herri osorako Euskal Herriko hezkuntza sistemak benetan euskaldunduko dituen irakaskuntzarako hizkuntza politika berria aldarrikatuz. Oso garrantzitsua da denok han egotea, datozen belaunaldien euskalduntzea jokoan baitago.

Animo! Datorren larunbatean Donostian elkar ikusiko dugu!

BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI
maniFESTazioa
Maiatzak 27 larunbata
17.30ean Donostiako Bulebarretik

<http://www.labsindikatu.org/sektoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Bueno Monreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 Irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 Irakaskuntzabizkaia@ absindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 Irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 Irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	13 Marengo Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 baiona@ labsindikatu.org